

2017ko gida azkarra ARABA

"la Caixa" Banku Fundazioa




Obra Social "la Caixa"

110 urte baino gehiago gizartearekin konprometituak

"la Caixa" Banku Fundazioa 2014an sortu zen, "la Caixa" banku-fundazio bihurtu zenean. "la Caixa" bera 1904an sortu zen, eta harrezkero konpromiso sozial irmoa eta interes orokorraren aldeko apustua izan ditu ardatz, bai bere finantza-jardueran, bai Gizarte Ekintzan, zeinak gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta zientzia-jarduerak finantzatzen eta laguntzen baititu.

"la Caixa" Banku Fundazioak 20.000 milioi eurotik gorako balioa duten aktiboak administratzen ditu, eta zuzenean kudeatzen du "la Caixa" k bere historian ezaugarritzat izan duen Gizarte Ekintza. Gainera, CriteriaCaixa atala du, eta bertan biltzen ditu "la Caixa" Taldeak zer akzio-partaidetza dituen zenbait sektoretan, hala nola energia-sektorea, azpiegiturak, zerbitzuak, higiezinaren negozioa eta CaixaBank, Espainiako merkatuko txikizkako bankaren finantza-talde liderra.



Gizarte Ekintzaren funtsa

"la Caixa" k lurraldearen garapen sozioekonomikoa lortzeko konpromisoa hartu zuen sortu zenean, eta, gero, gizartearen, kulturaren eta herritarren aldeko zerbitzuak eskaintzen hasi zen pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

MISIOA

Gizarte hobe eta bidezkoago bat eraikitzea, gehien behar dutenei aukerak emanez.

BALIOAK

> Konpromiso soziala > Erantzukizuna > Konfiantza

IKUSPEGIA

Erreferentziatzko erakunde bat izatea gizartearentzat, honelako konponbide iraunkorrak garatzeko:

- > Talderik ahulenen oinarritzko beharrak asetzea.
- > Gizartearen aurrerabidea bultzatzea, erantzun egokia emanez ikerketan, bikaintasuna lortzeko bidean eta hezkuntzan dauden erronka berriak.
- > Zientzia eta kultura gizarte-alor guztietara hurbiltzea.

Pertsonen orainarekin eta etorkizunarekin konprometituak

Inpaktu eraldatzaile handia duten programetan arreta berezia jartzen dugu; adibidez, haurren pobrezia eta gizarte-bazterkeria borrokatzen duten programetan, enplegua sustatzen dutenetan eta ahulenen bizi-baldintzak hobetzen laguntzen dutenetan.


Gure jarduera beste eremu hauetan ere garatzen dugu: ikerketa medikoan, bikaintasuna sortzen, kulturaren eta heziketan, oinarritzkoak baitira aurrerapena eta aukera-berdintasuna sustatzeko.

1. Barne harturik sozietate ez-kotizatu batzuetako partaidetzak, hala nola Vithas, Caixa Capital Risc eta Aigües de Barcelona. bn laburdurak mila milioi esan nahi du. 2017ko abenduaren 31ko datuak.

Gizarte Ekintza

Gizarte-ekintzaren lana indartzen jarraitzeko asmoz, 2018ko aurrekontua 520 milioi eurora handitu dugu, uneko gizarte-premiei erantzun ahal izateko.

"LA CAIXA" BANKU FUNDAZIOAK
50.000 JARDUERA INGURU SUSTATU DITU 2017AN,
ETA JARDUEROK 11 MILIOI ONURADUN BAINO GEHIAGO
IZAN DITUZTE



Araba

"la Caixa" Gizarte Ekintza

Euskadin, 2017an, 11 milioi euroko aurrekontua bideratu da guztira gizarte-entitateen laguntzarako eta talde ahulenen eta premia gehien dutenak artatzera.

ARABAKO BULEGO-SAREAN BERTAN 2017AN KUDEATUTAKO EKINTZAK

Aurrekontu oso horretatik, 120.000 € baino gehiagoko inbertsioa izan dute 69 jarduera egin dira Arabako CaixaBank bulegoen bitartez eta toki-administrazioen eta gizarte-entitateen laguntzaz.



AURREKONTU OROKORRA
11 M € EUSKADIN

CAIXABANKEN BULEGOEN
AURREKONTUA²
115.073 € BAINO
GEHIAGO ARABAN

Mikrodohaintzak

Atari honetan, diru-dohaintzak egin ditzakezu, eta aukeratu dezakezu zer proiekturi lagundu nahi diozun eta zein den zure beharretara ongien egokitzen den dohaintza-mota:



Diru-dohaintzak, CaixaBank edo beste erakunde batek merkaturatutako txartel baten bidez



SMS bidez



Línea Abiertaren bidez, CaixaBanken bezero baldin bazara



Caixabanken edozein bulegotan

KLIK BAKAR BATEKIN, PROIEKTU HANDIETARAKO DIRU-DOHAINZA TXIKIAK
MICRODONATIVOS.LACAIXA.ES

LAGUNTZA

Dohaintza guztiak oso-osorik esleituko zaizkie hautatutako proiektuei, egiturazko inolako gasturik gabe.

2. CaixaBanken bulegoen aurrekontua lurraldeko aurrekontu orokorrean sartuta dago.



Soziala 2017



Haurren pobrezia

CaixaProinfancia programaren bidez eta zenbait gizarte-erakunderekin batera, Otik 18 urtera bitarteko neska-mutilei eta beren familiei laguntzen diegu aukera gehiago izan ditzaten etorkizunean.

EUSKADIN

> Artatutako haur-kopurua 597	> Inbertsioa 830.000 €
----------------------------------	---------------------------

Haurren txertaketa

Gavi the Vaccine Alliance-rekin batera, eta ISGlobalen lankidetzarekin, aliantza bat sustatu dugu garapen bidean dauden herrialdeetako haurren heriotza-tasari aurre egiteko.

NAZIOARTEAN

> Txertatutako haur-kopurua 2,5 milioi baino gehiago programa hasi zenetik

Enplegua

Zailtasunak dituzten edo gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten pertsonak lan-mundura sar daitezen ahalegintzen gara. Hainbat programa eta ekimen sustatzen ditugu, lan-aukerak bilatzen laguntzeko pertsona horiei.

ARABAN³

> Lanpostu-kopurua 94	> Enpresa laguntzaileak 41
--------------------------	-------------------------------

Work4Progress

Kalitateko enplegu jasagarria sortzeko berrikuntza-programa bat da. Indian, Mozambiken eta Perun ahultasun-egoeran bizi diren emakume eta gazteei zuzenduta dago, eta han bertan diharduten gizarte-erakundeekin elkarlanean egingo da.

NAZIOARTEAN

> Onuradunak 8.581

Etxebizitza

Babes ofizialeko araubidean ezarritakoa baino errenta txikiagoa duten alokairuko etxebizitzak ditugu gazteentzat, adinekoentzat eta diru-sarrerak murriztu zaizkien familientzat.

ESPAINIAN

> Etxebizitza sozialak 32.000

Adinekoak

Adinekoen bizi-kalitatea hobetze aldera, haien jarrera aktiboa sustatzen dugu; hori lortzeko, prestakuntza eta parte-hartze soziala bultzatzen dugu. Arreta berezia ematen diegu gizarte-egoera ahulean dauden adinekoiei.

EUSKADIN

> Erabiltzaile-kopurua 31.444	> Egindako jarduerak 501
----------------------------------	-----------------------------

3. Hauek barne: Incorpora, Naturaguneak, "la Caixa" Gazte Enplegua eta "la Caixa"ren Enplegu Gehiago programak, Europako Gizarte Funtsak kofinantzatutak.

Kontrakoa adierazi ezean, gida honetako datuak beti izango dira 2017koak.

Boluntarioak

Pertsonak gizartearekin duten konpromisoa sustatzen ditugu, premia gehien dutenen aldeko ekintza solidarioen bidez. Halaber, "la Caixa"ko langileen, erretiratuen, aurretik erretiratuen eta bezeroen lankidetzaren ere sustatzen dugu, borondatezko lan korporatiboaren bidez.

EUSKADIN

> Boluntario korporatiboak 231

ESPAINIAN

> Boluntarioak ⁴ 16.000 baino gehiago

Gaixotasun bat fase aurreratuan dutenentzako arreta integrala

Zainketa aringarrietan ematen zaien osasun-arretaren osagarri izan nahi du programa honek. Laguntza psikosoziala eta espiritualak eskaintzen duten profesionalak ditugu, arreta integrala izan dadin.

EUSKADIN

> Paziente-kopurua 759	> Artatutako senideak 923
> Arreta psikosozialeko ekiptoak 2	

Komunitateko kulturarteko esku-hartzea

Kultura desberdinetako herritarren arteko bizikidetzaren eta gizarte-kohesioa indartu nahi dugu prozesu komunitario batez eta zenbait eremutan eraginez, hala nola gizarte-eta hezkuntza-arloan, komunitateko osasunean eta herritarren harremanetan.

EUSKADIN

> Parte-hartzaileak 26.797	> Jarduerak 105
-------------------------------	--------------------

Gizarte-ekimeneko proiektuetarako laguntza-programa

Gizarte-egoera ahulean dauden milaka pertsonaren errealitatea aldatu dugu, hainbat herritan egindako proiektu sozialen bidez, eta, emandako diru-laguntzei esker, egoera hobetzeko aukera eskaini diegu.

ARABAN

> Proiektu-kopurua 1	> Inbertsioa 22.200 €
-------------------------	--------------------------

Malariaren eta pneumoniaren kontrako aliantzak

Bill eta Melinda Gates Fundazioarekin eta ISGlobalekin batera dihardugu, Mozambikeko hegoaldeko malaria desagerrarazteko. Unicefekin ere dihardugu, pneumonia lehenbailehen detektatu eta sendatzeko.

Haurren malnutrizioaren aurkako aliantza

ACNURen laguntzarekin, errefuxiatu-eremuetan bizi diren haurren biziraupena areagotzeko lanean dihardugu, haurren nutrizio-baldintzak hobetuz eta metodologia berritzaileak ezarriz.

NAZIOARTEAN

> Artatutako haur-kopurua 100.000 baino gehiago	> Artatutako haurdunak eta titia ematen ari direnak 20.000 baino gehiago
--	---

ProFuturo

Telefónica fundazioarekin batera, ProFuturo programa sustatzen dugu, hezkuntza digitala eskainiz egoera ahulean dauden Afrika, Latinoamerika eta Asiako herrialdeetako haur eta gazteei.

NAZIOARTEAN

> Haur onuradunak 5,6 M



4. Hauek barne: borondatezko lan korporatiboa, pertsona nagusiak eta espezializatua.



Kultura eta hezkuntza 2017



EduCaixa

Hezkuntzaren garrantziaz ohartuta gaudenez, EduCaixa programa indartu nahi dugu, hezkuntza-sistemaren agente eraldatzailea izan dadin. Programa honek hainbat tresna ditu —EduCaixa.com ataria, adibidez—, eta hezkuntza-programen eboluzioa finantzatzeko laguntzak.

ARABAN

- > **Ikasle onuradunak**
5.526
- > **Eskola parte-hartzaileak**
50



Erakusketa ibiltariak

Lurralde osoa korritzen duten erakusketak dira. Kultura eta zientzia sustatzen dituzte, hazkuntza pertsonaleko eta integrazio sozialeko tresna gisa.

ARABAN

- > **Erak. ibiltariak**
1
- > **Bisitari-kopurua**
23.063



Musika

Musika eta arte eszenikoak jende guztiarengana hurbiltzen ditugu publiko-mota ororentzako eskaintza baten bidez, bizikidetasuna, parte-hartzea eta errespetua sustatzeko.

EUSKADIN

- > **Kontzertuak**
1
- > **Ikusentzuleak**
2.004



Bekak, ikerketa eta berrikuntza 2017



Bekak

Talentua eta ibilbide zientifikoa eta ikertzailea bultzatu nahi ditugu, munduko zentrorik onenen lankidetzarekin. Gure gizartea eraldatzeko gai izan daitezkeenei aukerak emateko gakoa bikaintasunaren heziketa da.

ESPAINIAN ETA ATZERRIAN

- > **Emandako beka-kopurua**
197

ARABAN

- > **Emandako beka-kopurua**
1

Ikerketa

Punta-puntako ikerketari eta bikaintasunari lagundu nahi diegu. Horretarako, inpaktu sozial eta balio handiena izan dezaketen ikerketa-proiektuak lehenesten ditugu. Hori lortzeko, lankide-sare zabal bat sortu dugu herrialdeko ikerketa-zentro nagusiekin.

ESPAINIAN

- > **Ikerketaren eta berrikuntzaren inbertsioa**
35 M € baino gehiago

Berrikuntza

Gizarteari ezagutza eta teknologia transmititzeko ahalegina sustatzen dugu. CaixaImpulse programaren bidez, gizarteari ikerketaren berri iristarazteko ahalegina egiten duten proiektuak bultzatzen ditugu.

ESPAINIAN

- > **CaixaImpulse**
23 proiektu

INBERTSIO GLOBALA (BEKAK, IKERKETA ETA BERRIKUNTZA)
54 M € BAINO GEHIAGO

Gizarte Behatokia

Tresna honek gizartearen erronkak eta joerak aztertu eta haiei buruzko gogoeta sustatzen du. Publiko orokorrari gizarte-zientzien emaitza eta joera nagusiak helarazten dizkio modu erakargarri eta eskuragarrian.



© TESTUA, EGILEAK

© ARGAZKIAK, EGILEAK

© EDIZIOA, "LA CAIXA" BANKU FUNDAZIOA 2018

WEYLER PL., 3 · 07001 PALMA

GURE KONPROMISO SOZIALARI ESKER,
Espainiako lehen fundazioa gara,
eta munduko hirugarrena



Fundación Bancaria "la Caixa"